

Ebazpena: R18/ 2016

Espedientea: 98/2011

Vitoria-Gasteizen, 2016ko azaroaren 4an,

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordeak, Gabriel Casado Ollero batzordeburuak eta Isaac Merino Jara eta Javier Muguruza Arrese batzordekideek osaturikoak, honako hau

ERABAKI DU

Bizkaiko Foru Aldundiak (BFA) Zerga Administrazioako Estatu Agentziari (ZAEA) erakundearen (IFZ: A-00000000) egoitza fiskala zehazteko planteatutako eskumen-gatazkari buruz, zeina 98/2011 espediente-zenbakiarekin Arbitraje Batzorde honen aurrean izapidetzen den, Javier Muguruza Arrese jauna hizlari dela.

I. AURREKARIAK

1. Gatazka hori BFAk planteatu zuen, idazkari orokor teknikoak 2011ko urriaren 13an egin zuen idazki baten bidez. Idazkia egun berean sartu zen Arbitraje Batzorde honetan.

Idazki horretan eta erantsitako agirietan honako aurrekari hauek ageri dira, laburbilduta:

1) 2006ko martxoaren 21ean, BFAREN Zerga Ikuskaritzak erakundearen zerga-egoitzari buruzko txostena egin zuen.

2) Txosten horretan, aktuarioak honako hau adierazi zuen: a) enpresara bisita egiten saiatu ziren enpresaren benetako kudeaketa eta zuzendaritza-lana enpresak Bilboko kaleko zenbakian duen egoitza sozialean egiten zirela egiazta zezaketen ekintzarik eta zirkunstantziarik ote zegoen *in*

situ egiaztatzeko, eta egiaztatu zen eraikinaren atariko enpresa-direktorioan ez zegoela erakundearen izen sozialik; b) higiezinako atezainari galdetu zitzaionean ea bazekien erakundea higiezinan ote zegoen edo ea bazekien eraikineko beste enpresaren bat arduratzen ote zen erakunde horretako posta jasotzeaz, atezainak erantzun zuen enpresa ez zegoela higiezinako lokal bakar batean ere eta enpresa bakar batek ere ez zuela erakundearen posta jasotzen; c) enpresaren egoitza sozialera errekerimendu bat bidali zen agiri batzuk eskatzeko, eta jakinarazteko ahalegin guztiak alferrikakoak izan zirenez 2006ko martxoaren 6ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zela dagokion ediktua, baina ediktu horri ere ez zion sozietateko ordezkari bakar batek ere erantzun; d) BFAren katastroaren arabera, sozietatea ez da higiezin bakar baten titularra ere Lurralde Historiko horretan; e) sozietateak aurkeztutako 347 Eredutik ateratzen den informazioaren arabera, sozietatearekin harremanetan zeuden pertsona eta erakunde gehienak Bizkaitik kanpo bizi ziren; f) lanbide-jarduerak zirela medio 2003. urtetik 2005. urtera bitarteko aldiari atxikipenak egin zitzaizkien pertsonak ez ziren Bizkaian bizi; g) sozietateak Bizkaiko Foru Ogasunean aurkeztu zituen 2003. eta 2004. urteetako 190 Eredua eta 2003ko eta 2004ko Sozietateen gaineko Zergagatiko 200 Ereduko autolikidazioa (biak Bizkaiko Foru Aldundian aurkeztu ziren) Madrilen sinatuta eta datatuta zeuden; h) 2000. urtetik 2004. urtera bitarteko aldiko sozietateen gaineko zerga Bizkaiko Foru Aldundiari ordaintzeko sozietateak adierazitako helbideratze-kontuak Madrilgo banku-bulegokoak ziren; i) Bizkaiko Foru Aldundian aurkeztutako 4 inprimakitatik 3tan harremanetarako pertsona gisa azaltzen diren pertsonen galdetu ondoren, egiaztatu da bakar bat ere ez dela Bizkaian bizi eta inprimaki horietan jasotako harremanetarako telefonoek ez dutela 91 aurrizkia; j) sozietateari ezin izan zaio Bilboko kaleko zenbakian gertakari bakar bat ere jakinarazi; nolana ere, 1999ko otsailaren 17an Madrilgo kaleko zenbakian egindako jakinarazpen bat agertu zen; eta k) Gizarte Segurantzaren informazioa kontsultatu ondoren, ikusi zen sozietateak Bizkaian ez zeukala ez lantokirik ezta langilerik ere bere izenean.

3) BFAk, Ikuskaritzaren txosten horretan oinarrituta, zeinetan ondorioztatzen zen «oso litekeena zela enpresaren benetako kudeaketa eta

zuzendaritza-lana Madrilen egitea», helbidea aldatzeko proposamen bat egin zion ZAEARI 2006ko martxoaren 29an, baina ez zitzaion erantzun proposamen horri.

4) 2011ko maiatzaren 27an, eta igarotako bost urteetan sozietatearen inolako jardunen berri ez izanik, BFAk helbidea aldatzeko proposamena birbidali zuen ZAEARA, eta esanbidez adierazi zuen proposamen hori Ekonomia Itunaren 43.9 artikulua ondo ondo erantzun zuela. Kasu horretan ere ZAEAK ez zion erantzun helbidea aldatzeko proposamenari.

5) 2011ko irailaren 26an, eta gatazka hau jartzeko xedez, BFAREN Zerga Ikuskaritzak erakundearen zerga-egoitzari buruzko beste txosten bat egin zuen. Txosten hori 2006ko martxoaren 21eko txostenari eta txosten horri atxikitako agiriei lotzen zitzaieen osorik, eta gertakari garrantzitsu gisa sozietatearen 2009ko eta 2010eko ekitaldietako Auditoriari eta Urteko kontuei buruzko Txostena da; txosten horretan, sozietate hori 2001eko uztailaren 7an Kapital Aldakorreko Inbertsio Sozietate (SICAV) bihurtu zenetik, Madrilgo kaleko zenbakia azaltzen zen egoitza sozial gisa, eta, gainera, txosten horretan biltzen zen sozietatearen kudeaketa eta administrazio-lana Credit Suisse IIC bidez egiten zela aipatutako egoitzan, balore higigarriak Credit Suisse AGren babespean zeudela eta Credit Suisse Gestión SGIIC SA arduratzen zela sozietatearen administrazioaz eta ordezkartzez. BFAREN Zerga Ikuskaritzak berriro ondorioztatu zuen behar adina argudio eta frogak zeudela erakundearen benetako kudeaketa eta zuzendaritza Madrilen eta, zehazki, kaleko zenbakian kokatzeko.

6) Txosten horretan, zeinak sozietatearen 2009ko eta 2010eko ekitaldietako Auditoriari eta Urteko Kontuei buruzko Txostena, lehen ere aipatu dena, soilik gehitzen duen, ez da aipatzen sozietateak jarraitu ote zuen Bizkaiko Foru Aldundian aurkeztu zuten sozietateen gaineko zergagatiko autolikidazioak eta 2004. urteari dagozkion zerga-ereduen ondorengo beste zerga-eredu batzuk, urte horretakoak baitira Administrazioan aurkeztu ziren azkenak. Nolanahi ere, espedientean biltzen da 2008ko abuztuaren 30eko 036 Eredua aurkeztu zuela ZAEAN, eta eredu horren bitartez jakinarazi zuela bere helbide fiskala Madrilgo kaleko zenbakira aldatu zuela.

2. Planteamenduko idazkian BFAk argudioak azaldu zituen. Horien arabera, pentsatzen du erakundearen egoitza fiskala Madrilen egon dela sozietatea osatu zenetik. Eta, argudio horietan oinarrituta, BFAren aburuz, Arbitraje Batzordeak ondorio bera atera behar du.

3. 2015eko uztailaren 16an egindako bileran, Arbitraje Batzordeak erabaki zuen gatazka hori izapidetzea, eta estatuko administrazioari eta interesdunari jakinaraztea. Jakinarazpen horiek egin zirela jasota dago.

4. 2015eko urriaren 5eko idazki baten bidez (sarrera-erregistroa hurrengo egunean izan zuena), ZAEAk alegazioak egin zituen.

Alegazio horietan adierazi zuen BFAk emandako argudioek ez dutela indargabetzen erakundearen egoitza fiskala erakundea eratu zenetik Bilbon egon dela dioen iritzia.

ZAEAk honako alderdi hauek zehaztu ditu sozietateari buruz: a) Bilboko notario jaunaren aurrean emandako eskritura bidez Higigarrietako Inbertsio Sozietate (HIS) gisa eratu zen, 1989ko maiatzaren 5ean, eta Bizkaiko Merkataritza Erregistroan inskribatu zen, eta Kapital Aldakorreko Inbertsio Sozietate (SICAV) bihurtu zen 2011ko ekainaren 7an; b) 1991ko uztailaren 4an, sozietateak jendaurrean aurkeztu zuen, fede-emaile jaunaren aurrean Madrilen emandako eskritura bidez, bere estatutuak aldatzeko akordio bat. Akordio hori akziodunek sozietatearen egoitza sozialean 1991ko ekainaren 21ean egindako batzar nagusian hartu zuten. Eskritura horren eta eskritura horri erantsitako ziurtagiriaren arabera, data horretan sozietatea Bilboko kaleko zenbakian zegoen. Eskritura horri estatutuak aldatzeko Ekonomia eta Ogasun Ministerioak emandako baimena erantsi zitzaion eta Bilboko kalera igorri zen, eta, era berean, Bizkaiko Merkataritza Erregistroan inskribatzeko ziurtagiria erantsi zitzaion eskriturari; c) 2001eko ekainaren 21ean akziodunek egindako batzar horretan bertan erabaki zen (e)ko Erakundeak kudeatzeko sozietateari ahalmenak ematea erakundearen aktibo guztiak kudeatzeko eta administratzeko eta estatutuetan nahiz indarreko legerian ezarritako lege-esparruaren barruan ordezkatzeko; d) eskritura horren arabera hartutako estatutu sozialetan, erakundearen egoitza soziala Bilboko kalean zegoen; e) 2008ko ekainaren 25ean, sozietateak jendaurrean jarri zuen, Madrilgo \$\$\$\$\$\$ \$\$\$\$\$\$ notario

jaunaren aurrean emandako notario-eskritura bidez, administrazio-kontseiluak 2008ko martxoaren 31n egindako bileran lortutako akordioa, zeinaren bitartez sozietatearen egoitza soziala eta fiskala Madrilgo kaleko zenbakitik kaleko zenbakira aldatu zen; f) 2008ko abuztuaren 25ean, sozietateak egoitza soziala aldatzeari buruzko 036 Eredua aurkeztu zuen ZAEAn, eta jakinarazi zuen egun horretatik aurrera, sozietatea Madrilgo kaleko zenbakian helbideratuta azalduko zela; h) 2007ko datuen arabera, erakundeko kide nagusiek Bizkaian zeukaten beren egoitza fiskala, bi pertsona juridikok izan ezik; horien administratzaileak ziren pertsona fisikoek ere Bizkaian zeukaten beren bizilekua; era berean, 2007ko datuen arabera, sozietatearen hiru administratzaileetatik bi Madrilen bizi ziren eta bat Bizkaian.

ZAEAREN aburuz, erakundearen egoitza fiskala non dagoen edo erakunde horren negozioen administrazio-kudeaketa edo zuzendaritza benetan non dagoen zentralizatuta zehaztu ahal izateko, ezinbestekoa da zer sozietate mota den kontuan hartzea.

Kapital Aldakorreko Inbertsio Sozietate (SICAV) bat da, hots, Inbertsio Kolektiboko Erakunde (IKE) bat da, Inbertsio Kolektiboko Erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legean arautzen dena, eta erakunde mota horretan ohikoena da erakunde kudeatzaile bati agintzea erakundearen ondare soziala kudeatzeko eta administratzeko zereginak. Beraz, ezinbestekoa da kudeaketa hori eta negozioen benetako zuzendaritzaren ondare soziala bereiztea.

Horregatik, ZAEAREN iritziz, BFA hutsegitean erortzen da erakundearen egoitza fiskala Madrilen kokatu nahi izateagatik honako alderdi hauetan oinarrituta: erakundeak Bizkaian higiezinik ez izatea, erakundearen eragiketak Madrilen dauden hirugarrenekin egitea, erakundearen kontuak Madrilgo banku-bulegoetan egotea edo Bizkaian lantokirik edo enplegatuturik ez edukitzea.

ZAEAREN ustez hori ez da zuzena, zeren erakundea Madrilekin lotzen duen orok agerian jartzen baitu ondare sozialaren kudeaketa eta administrazioa Madrilen egiten direla eta IKEREN inbertsioen erakunde kudeatzailea lurralde horretan egotearen zuzeneko ondorioa dela, eta, BFAREN arabera, erakundea foru-lurraldetik deslotzen duen orok (higiezinik, lantokirik

eta langilerik ez edukitzea) ez dauka zentzurik kapital-inbertsioan jarduten duten erakunde mota horretan.

Kontuan hartuta 2008ko abuztuan sozietateak jakinarazi zuela bere egoitza fiskala Madriler a aldatuko zuela, ZAEAk esan du sozietatearen benetako zuzendaritza 1989. urtetik –hots, sozietatea eratu zen urtetik– 2008. urtera bitarte Bizkaian egin zela, lurralde horretan bizi zirelako sozietateko kide gehienak eta sozietatearen administrazio-organoaren presidentea, eta egiaztatuta dagoelako Bizkaian hartu zirela sozietatearen erabaki garrantzitsu gehienak, hala nola sozietatea eratzea, sozietatearen kapital sozialaren eta estatutuen aldaketak, sozietateak burtsan zituen akzioak sartzeko eta kentzeko erabakia eta ahalmenak erakunde kudeatzaile bati ematea, arestian aipatutako 1989. urtetik 2008. urtera bitarteko aldi.

ZAEAk bere alegazio-idazkiaren amaieran Arbitraje Batzordeari eskatu dio gatazka konpon dezala erakundearen uzia erabat hartuz, hau da, erakundearen egoitza fiskala Bilbon egon dela erakundearen eratu zenetik; nolana ere, erakundearen alegazioak hitzez hitz hartuta, ezinbestekoa da ondorioztatzea erakundearen uzia sozietatea eratu zen datatik 2008ko abuztura bitarteko aldira mugatzen dela, zeren data horren ondoren ZAEAk onartu baitzuen, BFAk esan duenaren arabera, egoitza fiskala Madrilen zegoela.

5. Espedientea amaituta, ZAEari, BFari eta erakunde interesdunari jakinarazi zitzaion. BFAk alegazioak egin zituen 2015eko azaroaren 19ko idazki bidez (hurrengo egunean sartu zen Arbitraje Batzordean). Haren bitartez, errekurtsio-idazkian jasotako alegazioak berretsi zituen. ZAEAk eta erakunde interesdunak ez dute alegaziorik egin.

6.- Prozeduraren izapideak egin dira abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuak onetsitako Arbitraje Batzordearen Erregelamenduan xedatutakoari jarraikiz.

II.- ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1. Gatazka honetan planteatutako auzia honako hau da: zehaztea non dagoen kokatuta erakundearen egoitza fiskala. Nolanahi ere, adierazi behar da, alderdiek egindako alegazioak kontuan hartuta, gatazka erakundea eratu zen datatik 2008ko abuztura bitarteko aldira mugatuta geratu dela; izan ere, ZAEAk bere alegazio-idazkian esanbidez onartu zuen 2008ko abuztuaren 25ean sozietateak jakinarazi ziola bere egoitza fiskala Madrilen zegoela, eta, BFAk esaten duenez, sozietatea sortu zenetik leku horretan egon da helbideratuta.

2. Gai hau ebazteko, Ekonomia Itunaren 43.Lau, b) artikulua aplikatu behar da. Artikulu horrek xedatzen duenez:

«Ekonomia Itun honen ondorioetarako, jarraian aipatuko direnek zerga-egoitza Euskadin dutela uste izango da:

(...)

b) Pertsona juridikoak eta sozietateen gaineko zergaren menpean dauden gainerako erakundeak, Euskal Autonomia Erkidegoan baldin badute sozietate-egoitza eta betiere sozietate-egoitza horretan baldin badute zentralizatuta administrazio-kudeaketa eta negozioen zuzendaritza. Edo, bestela, kudeaketa edo zuzendaritza-lan hori Euskadin egiten bada (...).”

2.- Hona Arbitraje Batzorde honek askotan errepikatu duen doktrina, Auzitegi Gorenak ere berretsia: “pertsona juridikoen zerga-egoitza zehazteko garaian, berdin dio non dagoen bere sozietatearen helbidea. Aitzitik, administrazio-kudeaketa eta negozioen zuzendaritza gunen nagusiaren kokapena da hori erabakitzen duen irizpidea. Dena dela, egoitza zehaztea ez da eginkizun erraza; izan ere, alde batetik, aginduzko erregelek sekulako garrantzia dute zerga-egoitza zehazteko, zerga batzuk eta besteak aplikatze aldera; beste alde batetik, ordea, Ekonomia Itunean negozioen benetako administrazio-kudeaketa eta zuzendaritza zentralizaturik dauden lekua identifikatzeko, ez da arau bat ere zehazten. Horren ondorioz, “zerga-egoitzaren kokapena (...) frogatu egin beharko da, baldintza horiek toki jakin batean gertatzen direla egiaztatuta». Hala diote, besteak beste, ebazpen hauek: R4/2009, 2009ko martxoaren 6koa (5/2008 espedientea) -Auzitegi Gorenaren 2010eko otsailaren 8ko epaiak 191/2009 errekurtsioan berretsia-; R2/2013, 2013ko urtarrilaren 25ekoa (02/2010 espedientea); R3/2013, urtarrilaren 25ekoa (03/2010 espedientea);

R4/2013, 2013ko urtarrilaren 25ekoa (04/2010 espedientea); R5/2013, 2013ko otsailaren 22koa (05/2010 espedientea); R6/2013, 2013ko otsailaren 22koa (06/2010 espedientea); R8/2015, 2015eko ekainaren 19koa (33/2014 espedientea); eta R12/2015, 2015eko ekainaren 19koa (30/2014 espedientea).

Aurreko ebazpenetan azpimarratu da “negozioen kudeaketa administratiboa eta zuzendaritza” nozioa kontzeptu juridiko zehaztugabea dela, eta hori zehazteko kasuaren baldintza guztiak aintzat hartu behar direla (besteak beste, honako ebazpen hauek: 2012ko martxoaren 30eko R3/2012, 31/2008 espedientea; 2012ko maiatzaren 11ko R7/2012, 36/2008 espedientea; 2012ko abenduaren 27ko R18/2012, 19/2010 espedientea; 2013ko uztailaren 24ko R14/2013, 31/2010 espedientea –Auzitegi Gorenaren 2015eko ekainaren 18ko Epaia berretsia, 417/2013 errekurso-zenbakia–; 2014ko urriaren 13ko R4/2014, 2/2011 espedientea; 2014ko abenduaren 19ko R7/2014, 32/2010 espedientea; 2015eko ekainaren 19ko R8/2015, 33/2014 espedientea; 2015eko ekainaren 19ko R12/2015, 30/2014 espedientea eta 2016ko maiatzaren 4ko R8/2016, 97/2011 espedientea). Auzitegi Gorenak honako hau adierazi du: «Negozioen kudeaketa administratiboa eta zuzendaritza zentralizatzea adierazpen konplexua da (...), eta kasuan kasu osatu behar da. Egoera bakoitzeko baldintza objektiboen arabera osatzeaz gain, funtsean kasuan kasuko sozietatearen arabera osatu behar da, bereziki, haren jardura aintzat hartuta» (2013ko urriaren 17ko Epaia, 538/2012 errekurso-zenbakia, laugarren oinarria; 2014ko otsailaren 21eko Epaia, 505/2012 errekurso-zenbakia, laugarren oinarria; eta 2015eko ekainaren 18ko Epaia, 417/2013 eta 471/2013 errekurso-zenbakiak, bosgarren oinarria).

Bada, erakundearen benetako kudeaketa eta zuzendaritza gauzatu ziren lekuari buruz BFAk eta ZAEAk duten desadostasun hori ebazteko (Ekonomia Itunaren 43. artikulua. Sei eta EIABEaren 3. c) artikulua), espedientean azaltzen diren datuak eta elementu frogagarriak aztertu behar dira eta kasuaren gorabehera guztiak elkarrekin hartu behar dira kontuan eta balioetsi behar dira, \$\$\$\$\$\$ erakundeak gauzatzen duen jardueraren funtsezko ekintza aintzat hartuta.

3. erakundeak garatzen duen jarduerari dagokionez, SICAV (Kapital Aldakorreko Inbertsio Sozietatea) batek gauzatzen duen jardura da.

Hortaz, gaur egun azaroaren 4ko 35/2003 Legeak arautzen dituzten Inbertsio Kolektiboko Erakundeetako bat da. Erakunde horiek lehen abenduaren 26ko 46/1984 Lege indargabetuak arautzen zituen.

35/2003 Legearen 1. artikulua hau dio: «Jendearen funtsak, ondasunak edo eskubideak atzematea helburu duten erakundeak dira Inbertsio Kolektiboko Erakundeak, funts, ondasun edo eskubide horiek kudeatzeko edota haiek ondasunetan, eskubideetan, baloretan eta bestelako tresnetan (finantzarioetan edo ez-finantzarioetan) inbertitzeko, betiere inbertitzailearen etekina emaitza kolektiboen arabera ezartzen bada», eta zehazten du «inbertsio-sozietatearen edo inbertsio-funtsaren itxura izango dutela».

Erakunde horien jardura berezia denez, 35/2003 Legeak aurreikusten du, lehenago 46/1984 Legeak aurreikusi zuen bezala, Inbertsio Kolektiboko Erakundeek agindu diezaioketela Sozietate Kudeatzaile bati erakundearen kudeaketaz arduratzeko. Eta, horregatik, lege horren 40. artikuluan ezartzen da zer diren Inbertsio Kolektiboko Erakundeen sozietate kudeatzaileak eta zer eginkizun bete behar dituzten sozietate horiek, honako honetan oinarrituta:

«40. artikulua. Jardueraren eta izendapenaren kontzeptua, helburu soziala eta erreserba.

1. IKESKak sozietate anonimoak dira. Haien sozietate-xedeak dira inbertsio-funtsen eta inbertsio-sozietateen inbertsioak kudeatzea, arriskuak kontrolatu eta kudeatzea, harpidetza eta itzulketak administratu, ordezkatu eta kudeatzea.

Gainera, sozietate kudeatzaileak honako jardura hauek egiteko baimendu ahal izango dira:

a) Inbertsio-zorroen zuzentzaileak eta banakako kudeaketa, barnean direla inbertsio-funtsei dagozkienak, inbertsiogileek edo lege baimendutako pertsona batek emandako aginduaren arabera, baldin eta zorro horien barruan Balore Merkaturari buruzko uztailaren 28ko 24/1988 Legearen 2. artikuluan aurreikusitako tresna bat edo batzuk badaude.

b) Arrisku-kapitaleko erakundeak, Inbertsio Kolektibo Itxiko Erakundeak, Europako Kapital Arriskuko Funtsak (EKAF) eta Europako Gizarte Ekintzailetzako Funtsak (EGEF) administratu, ordezkatu, kudeatu eta merkaturatzea, Arrisku-kapitaleko erakundeak, inbertsio kolektibo itxiko

bestelako erakundeak eta inbertsio kolektibo itxiko erakundeen erakunde kudeatzaileak arautzen dituen eta azaroaren 4ko 35/2003 Legea –Inbertsio kolektiboko erakundeena– aldatzen duen azaroaren 12ko 22/2014 Legean ezarrita dagoen bezala.

2. Artikulu honetako 1. zenbakian xedatuta dagoena gorabehera, sozietate kudeatzaileak honako jarduera osagarri hauek ere egiteko baimendu ahal izango dira: (...)

a) Balore Merkatuei buruzko uztailaren 28ko 24/1988 Legearen 2. artikuluan aurreikusitako tresna bateko edo batzuetako inbertsioei buruzko aholkularitza.

b) Inbertsio-funtsetako partaidetzak eta, bidezkoa bada, EKAFen eta EGEFen inbertsio-sozietateen akzioak zaindu eta administratzea.

c) Bezeroen aginduak jaso eta transmititzea, finantza-tresna bati edo batzuei buruz (...)

5. Sozietate kudeatzaileek hirugarren erakundeen esku utz dezakete, osorik edo partzialki, arauz ezartzen diren baldintzen arabera kudeatutako IKEen ondareak osatzen dituzten aktiboen kudeaketa. Sozietateak hainbat eginkizun hirugarrenen esku uzteak ezin izango du kudeaketa-sozietatearen erantzukizunean eragin (...).

11. Sozietate kudeatzaileek partizipazioei buruzko eta, orokorrean, sozietate horiek balore-merkatuan gauzatzen dituzten erakundeei buruzko erregistroak eta dokumentuak eraman eta mantendu beharko dituzte. »

Hortaz, SICAV batean ezinbestekoa da kudeaketa sozietatearen ondaretik, hots, sozietatearen aktiboetatik bereiztea; egoera horren baliokidea izango litzateke ohiko sozietate baten produkzioaren kudeaketa teknikoa, negozioen benetako zuzendaritzaren kudeaketa teknikoa, aurrekoa ere sozietate kudeatzaile bati agintzen zaionean, kasu honetan bezala, erakundea ez dago behartuta lokala eta langileak edukitzera; horregatik, egoitza fiskala erakundearen administratzaileek eta gobernu-organoek zuzendaritza-eginkizunak gauzatzen dituen lekuan egongo da.

Horren ondorioz, SICAV baten jarduera berezia denez, sozietatearen aktiboen kudeaketa sozietate kudeatzaile bati agintzen bazaio, beste inguruabar batzuetan erakunde baten benetako zuzendaritzaren egoitza

kokatzeko garrantzitsutzat hartzen diren elementuek, hala nola notario-eskriurak eman diren lekuak, banku-kontuak irekita dauden lekuak edo sozietatearen hornitzaile nagusiak kokatuta dauden lekuak, ez dute horrenbesteko pisurik.

..... erakundearen kasuan, argi eta garbi ikusten da erakundeak lotura izan duela Bizkaiko Lurralde Historikoarekin sortu zenetik 2007. urtera bitarte behintzat. Lotura horiek erakundearen akziodun nagusien eta presidentearen bizilekuei buruzkoak eta sozietatea gidatzeko akordio erabakigarriak hartu diren lekuari buruzkoak dira.

Baina batez ere nabarmentzen da erakundeak, gatazka izan den aldi osoan, Bizkaiko Foru Aldundiarekin izan zituela zerga-arloko harreman guztiak eta, bereziki, Bizkaiko Foru Aldundian aurkeztu zituela sozietateen gaineko zergaren aitorpenak, eta inolako eztabaidarik gabe onartu zizkiotela, antza denez, hamabost urtean, hots, 1990. urtetik 2006. urtera bitarte.

Eta, 2006. urtean BFAk erakundearen egoitza fiskala zuzentzeko espedienteari hasiera eman zion arren, deigarria da, BFAREN ekimena ZAEAK bultzatu ez zuela ikusita, BFAk beste jardunik ez egitea bost urte igaro arte, hau da, 2011ra arte, eta hain zuzen ere erakundeak bere egoitza fiskala Madrilera benetan aldatu zuela jasota azaltzen den urtetik, hots, 2008tik, hiru urte igaro zirenean hastea jardunak gauzatzen.

Era berean, deigarria da erakundeak egoitza fiskala aldatzeko espedientea 2011n eskatu zuenean, BFAk ez aurkeztea 2006ko txostenean bildu zituen argudioak eta froga-elementuak ez diren beste argudio eta froga-elementu batzuk, soil-soilik sozietatearen 2009ko eta 2010eko ekitaldietako Auditoriari eta Urteko Kontuei buruzko Txostenaren kopia aurkeztu zuen. Txosten hori 2008tik ondoregoko ekitaldietakoa da, eta urte horretan sozietateak jakinarazi zuen bere egoitza fiskala Madrilera zuela.

Nolanahi ere, egia da jasota dagoela erakundeak loturak zituela Madrilera bere egoitza fiskala aldatu aurretik, baina lotura horiek arrazoizkoak izan daitezke kontuan hartzen bada sozietatearen aktiboak kudeatzen zituen sozietate kudeatzailea Madrilera zegoela eta sozietate mota horrek erakunde bezalako Inbertsio Kolektiboko Erakunde batentzat gauza ditzakeen eginkizunak gauzatzen zituela.

Inguruabar horietan, ezin da ikusi erakundeak deklaraturako eta BFAk ez ezik ZAEAk ere hamabost urtean baino gehiagoan –hau da, erakundea eratu zenetik 2006. urtera bitarte– inolako eragozpenik gabe onartutako egoitza fiskalaren segurtasunari buruzko lege-presuntzioa nagusitzea eragozteko adinako arrazoirik

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak honako hau

ERABAKI DU

- 1.- Deklaratzea SICAVen (IFZ: A-00000000) egoitza fiskala Bizkaian zegoela, sozietatea eratu zenetik egoitza fiskala 2008an Madrilera aldatu zen arte.
- 2.- Jardunak amaitutzat jotzea eta artxibatzea.
- 3.- Hitzarmen hau Bizkaiko Foru Aldundiari, Zerga Administrazioako Estatu Agentziari eta SICAVi jakinaraztea. \$\$\$\$